



**SOCIEDAD URBANÍSTICA MUNICIPAL DE VITORIA ENSANCHE 21
ZABALGUNEA GASTEIZKO UDAL HIRIGIN-TZA ELKARTEA SA-REN
ESTATUTU SOZIALAK**

AURKIBIDEA:

Atariko artikulua.- Sozietateko hizkuntza ofizialak.

- 1. artikulua.- Izaera eta izena.**
- 2. artikulua.- Xedea**
- 3. artikulua.- Ahalmen eta zereginak.**
- 4. artikulua.- Jarduteko gaitasuna.**
- 5. artikulua.- Iraupena.**
- 6. artikulua.- Sozietatearen helbidea.**
- 7. artikulua.- Kapital soziala.**
- 8. artikulua.- Ekintzak.**
- 9. artikulua.- Zuzendaritza eta administrazioa.**
- 10. artikulua.- Batzar Nagusia.**
- 11. artikulua.- Batzar Nagusiaren eskumenak.**
- 12. artikulua.- Administrazio Kontseilua.**
- 13. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren bilkuren erregimena.**
- 14. artikulua.- Idazkaria eta kontu-ikuskaria.**
- 15. artikulua.- Kontseiluaren eskumen eta zereginak.**
- 16. artikulua.- Lehendakaria eta lehendakariordea.**
- 17. artikulua.- Lehendakariaren eskumenak.**
- 18. artikulua.- Kudeatzailea.**
- 19. artikulua.- Kudeatzailearen zereginak.**
- 20. artikulua.- Kontratazio mahaia.**
- 21. artikulua.- Balantzea eta kontuak.**
- 22. artikulua.- Deuseztatzea eta likidazioa.**



ARTIKULUAK

Atariko artikulua.- Sozietateko hizkuntza ofizialak. Euskara eta gaztelania dira Gasteizko Udaleko hizkuntza ofizialak, baita sozietate honetakoak ere, eta bata nahiz bestea erabili ahal izango da. Sozietatearen argitalpenak, iragarkiak eta abar bi hizkuntzetan egingo dira.

1. artikulua.- Izaera eta izena. "Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria - Gasteizko Udal Hirigintza Elkarte, ENSANCHE 21 ZABALGUNEA SA" izeneko sozietate hau birgaitzea eta udal lurzorua gaitzat dituen sozietate bat da, Gasteizko Udalak sozietate anonimo gisa eratuakoa. Kapital Sozietateen Legeari, merkataritza legediari, toki erregimena arautzen duen legediari eta hirigintzaren alorreko legeei eta estatutu hauei lotua egongo da.

Gasteizko Udalaren bitarteko propioaren izaera du sozietateak, helburu sozialean jasotako zerbitzu eta jarduerak emateko eta Udalak berak eta haren entitateek egiten dizkioten aginduak betetzeko xedez, Udalak hartzen dituen erabakietan zehaztutako termino eta baldintzetan eta sektore publikoko kontratuen legedian eta araudi osagarrietan ezarritakoari jarraituz.

2. artikulua.- Xedea. Zuzenbideak ahalbidetzen duen modurik zabalenean Gasteizko Udalari laguntza ematea izango da sozietatearen xedea, batetik, hiria birgaitzen, biziberritzen eta berritzen, horretarako beharrezko diren ekintzak eta jarduerak gauzatuz: batetik, hiria zabaltzeko eta oneratzeko esparruen planeamendua eta antolakuntza gauzatzen, Udalak udalerrirako onartzen duen hirigintza eta ingurumen planeamendua aintzat hartuz, esparru horien urbanizazioa eta eraikuntza egoki burutzen lagunduz; bestetik, birgaikuntzaren, lurzoruaren nahiz etxebizitzaren inguruko politika garatzeko Udalak beraren gain uzten dituen proiektu edo programak kudeatuko ditu, eta beharrezko diren jarduerak bideratuko, udalaren etxebizitza publikoak kudeatzea barne, jabetzan emateko zein alokatzeko. Halaber, Gasteizko Udalak agintzen dion edozein hiri azpiegitura edo ekipamendu sustatu, diseinatu eta gauzatu ahalko du.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartu beharko ditu kudeatzeko mandatuak.

3. artikulua.- Ahalmen eta zereginak. Duen xede hori betetzeko, sozietateak, Gasteizko Udalaren baliabidea den aldetik, honako zeregin hauek burutuko ditu, baita horiek bideratzeak berekin dakartzanak, alde zuzenekoak, osagarriak, bigarren mailakoak nahiz horien ondorio direnak ere:

- a. Udal politika garatu eta gauzatzea eraikin eta etxebizitzaren birgaikuntzaren alorrean zein hiri biziberritzearen eta berritzearen alorrean, horretarako beharrezko diren azterlanak eta proiektuak landuz eta zeregin hori benetan betetzeko behar diren era guztietako kontratuak gauzatzeko ezein ekintza eta negozio onetsiz.



- b. *Hiria birgaitzeko, biziberritzeko eta berritzeko jarduerak gauzatzea ordenamendu juridikoan adierazitakoari jarraituz, zeregin hauek barne: hiri birgaikuntza antolatzeako programak, planak eta gainerako tresnak lantzea; eraikinak edo eraikuntzak kontserbatzeko era guztietako obrak eta konponketak proposatzea Udalari, hark onets ditzan —aurretik eraitsitako eraikinak ordeztzeko eraikuntza lan berriak egitea barne—, eta hiri-bilbea biziberritu eta berritzea, Gasteizko Udalak emandako jarraibide, irizpide eta programekin bat etorriz.*
- c. *Gasteizko Udalaren etxebizitza politika kudeatzea, udalaren etxebizitza publikoak kudeatzea barne, jabetzan emateko zein alokatzeko.*
- d. *Era guztietako azterlanak egitea eta Udalaren ekimenaren ondorio diren hirigintza antolakuntza, planeamendu, garapen nahiz kudeaketaren alorreko baliabideekin zerikusirik duten obra, zerbitzu eta hornikuntza kontratuak gauzatzeko edozein eratako egintzak prestatu, taxutu eta onestea, eta, halaber, planetan jasota ez dauden hirigintza ordenantzak gauzatzeko ere, nahiz eta halakoetan udal gobernu organoek dagokien onespena eman beharko dieten.*
- e. *Hiria birgaitu, biziberritu eta berritzea sustatu eta bultzatzeko ekintzak garatzea, zentzurik zabalenean ulertuta, partikularrei dirulaguntzak eta laguntzak zuzenean ematea barne, baita partikular, enpresa, erakunde eta administrazio publikoekin hitzarmenak egitea ere, bere eskumenen barruan.*
- f. *Udal organoek onetsitako planeamendua garatu, gauzatu eta kudeatzea, hirigintzarako kudeatze eta gauzatze baliabideen bitartez, behar denean desjabetzearen onuradun izaera bere gain hartuz eta beharrezko gertatzen diren obrak —azpiegitura-obrak, urbanizazio-obrak nahiz zerbitzu-hornikuntzak— burutuz.*
- g. *Urbanizazioaren, eta hiri biziberritzearen edo berritzearen ondorio diren udal orubeak besterentzea, edo horien gainean planeamenduan aurreikusitako eraikin eta etxebizitzak eraikitzeako kontratuak egitea, eta urbanizazioaren parte diren zerbitzuak kudeatu eta ustiatzea, dagokien emakida lortuz gero.*
- h. *Udalaren lurzoru ondarea kudeatzea, hiria zabaldu eta biziberritzeko esparruetan, haren titularitatea bere gain hartuko baitu.*
- i. *Gasteizko Udaleko sail eta zerbitzuei laguntza ematea, baita beste administrazio batzuei ere, hirigintza jarduerai, hiria birgaitu, biziberritu eta berritzeari eta lurralde antolakuntzari dagokienez, eta bere irizpena agertzea, onespena ematea Udalari edo beste administrazioaren bati dagokionean.*
- j. *Ekimen pribatuko hirigintza jarduerai eta hiria birgaitu, biziberritu eta berritzeko jarduerai laguntza ematea, horien bilakaera ikuskatuz eta antolakuntza, gauzatze eta kudeatze baliabideen berri emanez.*

4. artikulua. Jarduteko gaitasuna. Nortasun juridikoa du sozietateak, eta jarduteko erabateko gaitasuna, estatutu hauetan eta indarrean den legedian finkatutako moduan; besteak beste, honako hauetarako:



- a. Eskubideak erosi eta edukitzea, eskualdatu, besterendu, eratu, aldatu eta iraungiaraztea, eta jabe den edonolako ondasun eta eskubideak administratu eta baliatzea, zentzurik zabalenean ulertuta, ondasun higiezinak alokatzeko kontratuak egitea, lagatzea edo trukea barne, baita horien gaineko edonolako negozio juridiko ere. Hipotekak eratu, aldatu eta kitatzea, mailegu eta laguntzen itzulketaren berme gisa.
- b. Bestelako entitate edo sozietateetan parte hartzea, baldin eta bere helburua lortzeko lagungarri bada.
- c. Edonolako egintza eta erreklamazioak bideratu, errekursoak aurkeztu, kudeaketak egin, hitzarmenak sinatu, edonolako itunak izenpetu, obligazioak bere gain hartu, kredituak hitzartu, obligazioak jaulki eta jaraunspen, legatu, emari, dirulaguntza, sorospen eta bestelako laguntzak onartzea. Edonolako erakunde edo administrazio publikoei dirulaguntzak eta laguntzak eman zein eskatzea, bere jardueraren esparruan.
- d. Langileak, obrak, zerbitzuak eta hornikuntzak kontratatu eta abian jarritako zerbitzuak kudeatu eta administratzea, harik eta Udalak bere gain hartzen dituen arte, edo dagokion emakida lortzen badu.
- e. Ordezko bizitokiak kudeatzea, eraikinak birgaitu edo ordezteko lanak erraztearren, eta behar diren presazko lanak kudeatzeko aurrigoerarik edo horren arriskurik dagoelarik etxebizitzetako bizilagunentzat edo hirugarrenentzat berehalako arrisku edo kalterik gerta badaiteke.

Jarduteko ahalmenaz baliatzen delarik, sozietateak publizitate eta lehia printzipioak aplikatuko ditu ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko orduan, eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, aldiz, langileak kontratatzeko orduan. Era berean, aurrekontuen, finantzen kontrolaren eta eraginkortasunaren alorrean aplikagarri zaizkion arauetara moldatuko da.

5. artikulua.- Iraupena. Merkataritza Erregistroan inskribatu zelarik ekin zion bere jarduerari sozietateak, 2000ko ekainaren 21ean, eta mugarik gabeko iraupena izango du.

6. artikulua.- Sozietatearen helbidea. Sozietatearen helbidea Udaletxean —Espainia plaza, zenbaki gabe— izango da. Administrazio Kontseiluak ahalmena izango du lekuz aldatzeko, baita hiri barruan bulegoak jartzeko nahiz horiek kentzeko ere.

7. artikulua. Kapital soziala. EHUN ETA BERROGEITA SEI MILIOI HIRUREHUN ETA BAT MILA EUROKO (146.301.000 euro) kapital soziala du sozietateak, oso-osorik Udalak harpidetu eta ordaindua; izan ere, bera izango da sozietate honetako akziodun bakarra, eta hala adieraziko da, behar den zigilua jarriz, bai behin-behineko ordeztagirietan, bai akzio-agirietan ere.

8. artikulua. Akzioak. Kapital soziala berrogeita zortzi mila zazpiehun eta hirurogeita zazpi (48.767) akzio izendunek ordezkatzen dute, bakoitza hiru



mila euro (3.000 euro) nominalekoa, eta akzio bat baino gehiago bildu ahal duten tituluetan dago jasoa.

Gasteizko Udala da akzio horiek ordezkatzeko duten kapital sozialaren jabe bakarra, eta ezin izango du ez besterendu, ez beste zerbaitetarako baliatu.

9. artikulua.- Zuzendaritza eta administrazioa. Organo hauen ardurapean egongo dira sozietatearen zuzendaritza eta administrazioa:

- 1.- Batzar Nagusia.
- 2.- Administrazio Kontseilua.
- 3.- Lehendakaria eta lehendakariordea.
- 4.- Kudeatzailea.
- 5.- Kontratazio mahaia.

10. artikulua.- Batzar Nagusia. Udalbatza osatzen duten berberak osatuko dute Batzar Nagusia, zeinek, prozedurari eta erabakiak hartzeari dagozkienetan, toki erregimenari buruzko legedian araututakoaren arabera jokatuko baitu, ohiko bilkurak nahiz apartekoak izan. Ohiko bilkurak urtean behin egingo dira, urte natural bakoitzeko lehen sei hilabeteetan egin ere. Aparteko bilkuretarako deia lehendakariak egingo du, bere kabuz nahiz bokalen heren batek hala eskatuta.

11. artikulua. Batzar Nagusiaren eskumenak. Udalbatzak, Batzar Nagusia den aldetik, honako eskumen hauek izango ditu:

- a. Administrazio Kontseiluko kideak izendatu nahiz kargutik kentzea.
- b. Estatutuak aldatu nahiz sozietatea deuseztatu edo likidatzeari buruz erabakitzea, baita sozietatea bestelakotu, fusionatu, zatitu edo beste sozietateren batean parte hartzeari buruz ere.
- c. Kapitala gehitu nahiz murriztea, zorra edo obligazioak jaulkitzea eta mailegu, hipoteka nahiz bestelako kargei dagozkien zorrak eratu, onartu edo kitatzea.
- d. Sozietatearen inbentarioa, urteko kontuak eta emaitzaren aplikazioa onestea.
- e. Sozietatearen kudeaketa gaitzestea eta Sozietate Anonimoen Legeak aitortzen dizkion gainerako eskumenak baliatzea.

12. artikulua.- Administrazio Kontseilua. Administrazio Kontseiluari dagokio sozietatea kudeatzea, administratzea eta ordezkatzea. Kontseiluak gutxienez bederatzi eta gehienez hamabi kide izango ditu. Batzar Nagusiari dagokio kideen kopurua finkatu eta horiek izendatzea.

Kontseilari karguaren iraupena lau urtekoa izango da, hurrengo paragrafoan adierazten dena gorabehera.

Kontseilariak beren kargua onartu edo hari uko egiterik izango dute, dela sozietateari idazki bat igorritz, fede emateko moduan, dela Batzar Nagusian nahiz Administrazio Kontseiluan hala egiteko asmoaren berri adieraziz.

Sozietateko kontseilariak, zinegotzi ez badira, HIRUREHUN EUROKO (300,00 €) dieta kobratzeko eskubidea izango dute jaten diren bilera bakoitzeko, hain zuzen, sozietatearen organoek —Administrazio Kontseilua, Kontratazio mahaia edo kide diren epaimahaiak— egiten duten bilera bakoitzeko.



Kontseilariak izendatzeko garaian, Batzar Nagusiak aniztasuna izan dadin zainduko du adinari, generoari, gaitasunari edo prestakuntza zein esperientzia profesionalari dagokienez, edonolako bereizkeria ekar dezakeen isuri inpliziturik gerta ez dadin; bereziki, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzea ahalbidetuko du, kontseilari izateko behar den emakume kopurua hautatuz.

13. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren bilkuren erregimena. *Hilean behin bilduko da Administrazio Kontseilua ohiko bilkuran, aldez aurretik zehaztuko den egunean eta orduan.*

Lehendakaria beharturik egongo da Kontseiluaren aparteko bilerarako dei egitera baldin eta kontseilarien heren batek hala eskatzen badio, eta ezingo du Kontseiluaren bilera bost lanegunetik gora atzeratu, aztertu beharreko gaia azaltzen duen idazki dela medio eskaria egiten zaionetik kontatuta.

Bilera balio osoz egiterik izan dadin, ezinbestekoa izango da Kontseilua osatzen duten kideen erdia eta bat, gutxienez, bertan izatea, lehendakariaz —edo lehendakariordeaz— eta idazkariaz gain. Kontseilariaren batek ordezkaria izendatzen duelarik, bilkuran den beste kontseilari bat izan beharko du, eta idatziz adierazi beharko da.

Bilkuran diren kontseilarien gehiengo absolutuz hartuko dira erabakiak —ordezkatuak ere aintzat harturik—, salbu eta legeak bestelako gehiengoak eskatzen dituenean.

14. artikulua. Idazkaria eta kontu-ikuskaria. *Gasteizko Udaleko Aholkularitza Juridikoko legelari bat izango da Kontseiluko idazkaria, eta kontu-ikuskaria, kontu-hartzaile nagusia edo hark ordezko izendatzen duena; hori arduratuko da sozietatea kontrolatu eta fiskalizatzeko zereginenez, indarrean dagoen legediak xedatutakoarekin bat etorritz.*

15. artikulua.- Kontseiluaren eskumen eta zereginak. *Sozietatearen organo betearazlea da Administrazio Kontseilua, denik eta eskumenik handiena izango baitu haren xede soziala bete eta garatzeko orduan, salbu eta legez nahiz estatutu hauetan hala jasota dagoelako Batzar Nagusiari edo Kontseiluko lehendakariari eta ez besteri dagozkienak. Horrenbestez, ahalik eta eskumenik handiena izango du kontratatze eta era guztietako egintza eta negozioak burutzeko, obligaziozkoak eta xedatzezkoak, karga ezartzekoak, ohiko nahiz aparteko administraziozkoak eta jabetzakoak, era guztietako ondasun, higigarri, higiezin, diru eta balore higiezinekin lotuta, baita bestelako gaiekin lotuta ere, baldin eta beste organoren baten eskumenekoak ez badira eta xede sozialaren barruan sartzen badira. Orobat eman ahalko ditu ordezkotzan helburu horiek betetzeko beharrezko diren ahalmenak. Bereziki, honako hauek dagozkie Administrazio Kontseiluari:*

- a. *Bere jarduera arautzea, estatutuetan nahiz Kapital Sozietateen Legean aurreikusi gabekoetan.*



- b. Kontseilarien dimisioa onartzea.
- c. Batzar Nagusiari aurkeztu beharreko gai guztien berri aldez aurretik izatea, horien nondik norakoak finkatu, jarraitu eta, hala badagokio, onestea, eta, bereziki, honako hauek:
 - 1. Sozietatearen urteko jarduera programa, ekintzen oroitidazkia eta ekitaldi bakoitzeko txostena.
 - 2. Sozietatearen ekitaldi bakoitzerako aurrekontu-proiektua, urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena.
 - 3. Estatutuak aldatzeko proposamenak.
- d. Bere eskumenaren esparruan ekintzak bideratzea erabakitzea, beste organo batzuek premiazko egoeretan egindakoak berrestea, bere erabakien kontrako erreklamazioak ebaztea eta sozietatearen jardueraren nahiz erabakien kontra aurkeztutako kexa eta erreklamazioen berri izatea, eta egoki deritzona erabakitzea.
- e. Udalaren Lur Ondarea kudeatzea, baita hori eta sozietatearen gainerako ondasunak administratzea ere, sozietateari aitortua zaion eskumen esparruaren baitan.
- f. Sozietatea titular den ondasun higiezinak besterendu, eskuz aldatu nahiz kargatzea.
- g. 18.000 eurotik (hemezortzi mila euro) gorako gastuetarako baimena ematea.
- h. Hirigintzaren alorrean eta hiria birgaitu, biziberritu eta berritzearen alorrean erakunde publikoekin, entitate pribatuekin nahiz partikularrekin izenpetzen diren hitzarmenak onestea, Batzar Nagusiaren eskumenekoak ez direnean.
- i. Sozietatearen organigrama, plantilla, zereginak eta enplegu baldintzak onestea.
- j. Sozietatearen Kontratazio Mahaiko kideak izendatzea, eta haren funtzionamendu arauak finkatzea.
- k. Kudeatzailea izendatu nahi kargutik kentzea.
- l. Batzar Nagusiak beraren gain uzten dituen gainerako zereginak.

Aurreko eskumen zerrenda zerrendatze hutsa da, ez baitu helburu mugak jartzea. Zeregin horiek hobeto betetzeko, uneoro bereganatu ahalko dute kontseilariak sozietatearen esku dagoen informazioa, Kontseiluko lehendakariari proposamenak egin nahiz eskariak, eskeak eta galdeak aurkezteko ahalmena gorabehera. Proposamen, galde eta eske horiek aurkezten direnez geroztik Kontseiluak egiten duen ohiko lehen bilerako gai zerrendan sartu beharko dira.

Aurreko hilabetean egindako gastuen berri emango da, idatziz, Administrazio Kontseilua biltzeko ohiko deialdietako bakoitzean, baita behin-behineko balantzearen berri ere.

16. artikulua.- Lehendakaria eta lehendakariordea. Bertako kide direnen artetik hautatu eta izendatuko du Administrazio Kontseiluak lehendakaria, baita lehendakariordea ere, zeinek ordeztuko baitu lehendakaria bertan ez bada, kargua hutsik geratzen bada edo hura gaixorik badago.



17. artikulua.- Lehendakariaren eskumenak.

Administrazio Kontseiluko lehendakariak ordezkaturako du sozietatea enpresaren ibilbide edo trafikoa baitako gai guztietan; horretarako, edozein agintari, erakunde publiko edo entitate pribatu nahiz partikularren aurrean agertu ahalko da, baita edozein jurisdikziotako epaitegi edo auzitegien aurrean ere. Zehazki, hauek izango dira lehendakariaren eskumenak:

- a. *Administrazio Kontseilurako deia egitea.*
- b. *Bilera bakoitzean aztertuko diren gaien zerrenda finkatzea.*
- c. *Eztabaida eta bozketetan buru izatea, eta horiek zuzentzea. Berdinketa gertatuz gero, Administrazio Kontseiluaren hurrengo bilkuran bozkatuko da berriro proposamena. Bigarren bozketan berdinketak jarraituz gero, baztertutzat joko da.*
- d. *Sozietatearen jarduera-ildo eta irizpideak proposatzea Kontseiluari.*
- e. *Kontseiluak onetsitako hitzarmen eta kontratuak sinatzea, eta 18.000 eurora arteko (hemezortzi mila euro) edozein eratako kontratu eta gastuak izenpetzea, Kontseiluaren edo Batzar Nagusiaren eskumenekoak direnak salbu. Nolanahi ere, larrialdi edo premia handiko egoeretan, aipaturako kopuruaren gaineko gastuak egitea erabaki ahalko du Kontseiluko lehendakariak, eta Kontseiluaren hurrengo bilkuran zenbatekoaren eta horretarako arrazoien berri emango du.*
- f. *Kudeatzailearen esku utzi ahalko du lehendakariak kontratu eta gastuak formalizatzea, bere eskumeneko diren kopuruaren barruan.*
- g. *Kontseiluaren izenean jardutea, hura ordezkaturik, edozein eratako auzi eta prozeduretan nahiz epai- eta administrazio-errekurtsoetan, eta horretarako beharrezko den ahalmena besteri aitortzea.*
- h. *Sozietatearen organigrama, plantilla, zereginak, enplegu baldintzak eta hitzarmen kolektiboa proposatzea Kontseiluari, baita aurrekontuak, balantzeak, inbentarioak, jardura programak eta ekintzen oroitidazkiak ere.*

18. artikulua.- Kudeatzailea. *Administrazio Kontseiluak izendaturako du kudeatzailea, lehendakariak proposaturik. Administrazio Kontseiluak, halaber, gaitzetsi egin ahal izango du kudeatzailea, bertako kideen gehiengo absolutuz hartutako erabakia dela medio. Hala gertatuz gero, beste norbait proposatu beharko du lehendakariak kudeatzaile izateko.*

Erabateko dedikazio eskusiboz jardungo du kudeatzaileak, Kontseiluak besterik erabakitzen duen salbu, eta kargua profesionala eta ordaindua izango da.

19. artikulua.- Kudeatzailearen zereginak. *Hauek dira kudeatzailearen zereginak:*

- a. *Kontseiluari nahiz Kontseiluko lehendakariari, zeini bere zereginetan laguntzea, eta aholkuak ematea jorratzen dituzten gaien inguruan, eta horien erabaki eta ebazpenak gauzatzea.*



- b. *Sozietatearen organigrama, plantilla, zereginak, enplegu baldintzak eta hitzarmen kolektiboa proposatzea Kontseiluko lehendakariari, baita aurrekontuak, balantzeak, inbentarioak, jarduera programak eta ekintzen oroitidazkiak ere.*
- c. *Sozietatearen jarduera zuzendu eta ikuskatzea, eta bultzatzea; sozietatearen zerbitzura diharduten langileen zuzeneko eta ondoko buru izatea, lana banatu eta kontrolatzea eta, oro har, sozietateak albait ongien funtziona dezan beharrezko diren neurriak hartzea.*
- d. *Erabaki eta ebazpenak gauzatzeko beharrezko diren sozietatearen agiriak izenpetzea, eta ontzat ematea ziurtagiriak, likidazioak eta kontratatutako obra, zerbitzu nahiz hornikuntzen hartzea, baita haren funtzionamendutik sortutako gastuak ere, baldin eta aurreko atalean adierazitako kopurua gainditzen ez badute, Kontseiluari, hartako lehendakariari nahiz Batzar Nagusiari dagozkien onespenezko gorabehera.*
- e. *Lehendakariak berariaz ordezkotzen duenari, sozietatea ordezkotzea edozein agintari, erakunde publiko edo entitate pribatu nahiz partikularren aurrean, baita edozein jurisdikzio-tako epaitegi edo auzitegien aurrean ere.*
- f. *Edozein motatako jakinarazpen eta errekerimendu egin, eman eta erantzutea, notario batenak barne, eta notarioaren esku-hartzea eskatzea edozein motatako ekintzak baimentzeko. Kontu korrontek ireki, haien jarraipena egin, aldatu eta iraungitzea; diru gordailuak eratzea edozein kreditu entitatearekin, horiek aldatu eta deuseztatzea. Zorrak ordaintzea, dirutan edo horretarako taloiak, txekak, ordezkagiriak, ordainagiriak, igorpenak, transferentziak, kontuan kargatzekoak eta bestelako banku-agiriak egin eta izenpetuta. Edozein kopuru kobratzea, erakunde publikoen ordain-aginduak barne. Kredituak eta horien interesak kobratzea, edozein izanik ere zenbatekoa eta ordaintzera behartutako pertsona, eta interesak likidatzea.*
- g. *Funtsak bereizi, banandu, erantsi eta elkartzeko; obra berriaren edo obra eraitsiaren adierazpenak egitea; deskripzio-datuak zuzentzea; edukiera soberakinen inskripzioa lortzea; nabaritasun-aktak, jabari-dosierrak eta zama eta zergetatik libre uzteko dosierrak tramitatzea, amaierara arte; lurzoruari buruzko legediak eskatutako jarduerak gauzatzeko; urbanizazio plan orotan esku hartzea, horien aurretik egin beharreko guztian, baita horien zein indarrean dagoen lurzoru legediaren eraginez edo ondorioz egin beharrekoetan ere.*
- h. *Ondasun higigarri eta higiezin gainerako eskubide hauek eratu, aitortu, luzatu, aldatu, geroratu, ukatu, eskualdatu eta azkentzea: gozamina, erabilera, biztantzak, enfiteusia, zentsuak, zortasun pertsonalak edo errealak, hipoteka, bahia, antikresia, azalera, gainera eraikitzea, azpian eraikitzea, lehentasunez erostea, atzera eskuratzea, errentamenduak (baita inskribagarriak ere), eta era guztietako eskubide pertsonal edo erreal.*
- i. *Jabekidetasunak eta edonolako ondasunen —baita jabetza horizontalekoen ere— gainerako erkidegoak eratu, aitortu, luzatu, aldatu*



Ensanche 21 Zabalgunea

- eta osorik edo partez azkentzea; edonolako erkidegoen estatutuak, erregelamenduak edo ordenantzak onetsi eta aldatzea.
- j. Oro har, Kontseiluak nahiz hartako lehendakariak ematen dizkioten zereginak bere gain hartzea.
 - k. Kudeatzaileak sozietatearen langileen gain utzi ahalko du "h" eta "i" ataletan aitortutako ahalmenak publiko bihurtzeko zeregina.

20. artikulua.- Kontratazio mahaia. Kontratazio Mahaia bat izango da sozietatean. Administrazio Kontseiluak onetsiko ditu horren osaera eta funtzionamendua.

Kasu bakoitzean aplikagarri zaizkion printzipio eta araudi publikoak errespetatuz jardungo du beti ere Kontratazio Mahaia.

21. artikulua.- Balantzea eta kontuak. Kontabilitate publikoaren erregimenaren menpe egongo da sozietatea, eta orobat egokituko da Merkataritza Kodeko xedapenetara eta merkataritzaren alorreko gainerako legedira, baita Enpresen Ondare Kontabilitateko Kontu Plan Orokorreara ere. Ekitaldi bakoitza urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Ekitaldia bukatu ondorengo hiru hilabeteko epean, urteko kontuak, kudeaketa txostena eta emaitzak aplikatzeko proposamena egingo ditu Administrazio Kontseiluak, Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateratuko 253. artikuluaaren ildotik.

Epe berean, kanpoko ebaluazio publikoa egingo da, xede hauekin: ekitaldian burututako ekintzen egokitasuna ezagutzea, Gasteizko gizartean eta udalerrian izandako eraginaren analisia, beharren azterketa egitea, eta hobekuntza-proposamenak eta/edo etorkizunerako jarduerak ezartzea.

22. artikulua.- Deuseztatzea eta likidazioa. Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateratuko 360. artikuluan aurreikusitako arrazoietakoren batengatik deuseztatu ahalko da sozietatea; hala gertatuz gero, Gasteizko Udala izango da oinordeko unibertsala.